


Estela Gomez Aguilera

B maila • 2 aipamena

Kaixo, ni Estela Gomez naiz. 2004eko ekainaren 3an jaio nintzen. Gaur egun, Beasainen bizi naiz eta La Salle San Jose ikastetxean ikasten dut.

Nere zaletasun nabarmenenak irakurtzea, marraztea eta noizbehinka idaztea dira. Olerki hau idazten hasi nintzenean, ez nuen espero ezer irabaztea.

Nere pentsamenduak adierazteko idatzi bat besterik ez baitzen. Zer dago heriotza eta gero? Zaila da jakitea baino hemen nire ikuspuntua ematen dut era pertsonal batean. Oso pozik nago aipamenarekin, eta espero dut zuen gustukoa izatea. Eskerrik asko guztioi.



ITZALA ILUNTASUNEAN

Ohean guztiz etzanda,
neure begiak itxita.
Bizirik gabeko gorputza,
bizirik gabeko arima.

Dena izotz bezala, hotza eta bustia.
Dena gaua bezala, beltza eta iluna.
Dagoeneko ez naiz izaki biziduna,
ezta gorputzik gabeko mamua.

Orain ezin naiz mugitu,
baino ez dut horrelakorik behar.
Ahotsak entzuten ditut.
Soinuak faltan botatzen dira.

Ez dut ezer ez ikusten,
begiak itxiak ditut.
Leku honetan utzita,
konpainia faltan nago.

Hasieran beldurra neukan,
berriro ez esnatzekoa.
Orain sentitzen dudana
berriz, bakartasuna da.

Ez naiz berriro saiatuko
Ez berriro barre egin.
Utziko diot hitz egiteari,
Betirako lo egiteko.